

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Benetako Cyrano

PARIS, 1897. Théâtre de la Renaissance delakoan Edmond Rostandek idatzitako *Cyrano de Bergerac* obra estreinatu zen. Antzezlanak Roxana lehengusina maitemindutako mosketari eta ezpatari sudur handiaren gorabeherak kontatzen ditu. Bere azken orduetan, komentu batean bizi den Roxanari bere sentimenduak adieraziko dizkio eta, gero, bere bertso satiriko ezagunen biktimen mendekuak heriotzara eramango du.

Savinien de Cyrano, benetako pertsona, 1619an jaio zen, Parisen; ez zen, beraz, gaskoia, Rostandek idatzi bezala. Bergerac-eko lurak bere aitak erosi zituen eta hortik datorkio izena. Dekadentea, erromantikoa, surrealista, ironikoa, frantziar kulturaren pertsonaia garrantzitsua izan zen. Esaterako, Molière garaikideak estimu handian zuen. Bi antzezlan, nobela bat eta hainbat bertso satiriko idatzi zituen. Probokazioak ere egin zuen ezagun: *Agripinaren heriotza* lanean arimaren hilezkortasuna ukatu zuen, eta horrek eliza katolikoa eskandalua ekarri zuen.

Berrikuntza zientifiko eta filosofikoetan interes handia zuen Savinienek. Ilargiaren eta eguzkiaren estatuak eta inperioak izenburuko lanean gizon baten bidaia fantastikoa kontatzen du. Bidaia kohete batean egiten du protagonista –aurreikuspen harrigarria, XVII.

mendean–; lehenik Ilargira iritsiko da, eta gero Eguzkira. Selenitek, Cyranoren esanetan, lau hanka zituzten, eta baita oso arma praktikoak ere: animaliak ehizatzeaz gain, egosi egiten zituzten.

Biek, fikziozkoak eta benetakoak, izan zituzten satira, dueluak eta emakume-kontuak lagun. Badirudi sudur-raren tamaina izugarrian ere bat zetozela. Eta biak gizon independenteak izan ziren; garaiko idazleak aberatsen babespean egon ohi ziren, eta benetako Cyranok tarte labur batez baino ez zuen jaso mota horretako babesa. Cyrano literarioak ere pobre hiltzea erabaki zuen, eta azken unean Roxana lehengusinari bisita egitea erabaki zuen; lehengusina komentu batean sartua zen Arraseko gatazkan senarra galdu eta gero. Hura izan zen

pertsonaia sudur handiaren zorigaitza: bizitza guztia lehengusinarekin maiteminduta egonda ere, bere bertsoak beste bati eman zizkion, hura Roxanarekin ezkon zedin. Fikzio hutsa? Baliteke. Baina 1655.eko uztailaren 28an Savinien de Cyrano istripu arraro baten ondorioz zendu zen. Hainbaten ustez, etsaiek hil zuten, Rostanden pertsonaia bezalaxe. Bere azken orduak Filles de la Croix komentuan eman zituen; bertako prioreak ez zuen Roxana izena, Cathérine baizik, baina Cyranoren lehengusina zen. Kasualitate hutsa? ■



Savinien de Cyrano de Bergerac idazlearen XVII. mendeko grabatua. Cyrano ezagunago egin zen, ordea, XIX. mendeko azken urteetan, Edmond Rostandek beraren bizitzan oinarritutako antzezlanaren idatzi zuenean.

ARRASTOAK

BARKAMENA eskatu die Australiako parlamentuak bertako aborigenei, lehenengoz. Kevin Rudd-en gobernu laboristak aborigenenganako politika goitik behera aldatzeko abiapuntutzat jo du barkamen-ekitaldia. 1915. eta 1969. urteen artean milaka eta milaka haur aborigen kendu zizkieten gurasoei, familia zurietan hezteko, eta barkamena Lapurtutako Belaunaldi hari eska-



Kevin Rudd, Australiako lehen ministroa.

tu diote bereziki. Baina eskaria sinbolikoa besterik ez dela diote aborigen askok. Buruzagi aborigenek 1.000 milioi dolar eskatu zizkieten gobernuari, iraganean egindako kalte guztiaren ordainetan, baina gobernuak ezezkua eman die. Gainera, gobernuak Australiako hiritar guztiak ordezkatzeko omen ditu, baina biztanleen %30 barkamen eskatzearen aurka daude oraindik.